


# GIZALDE

Voluntariado Gipuzkoa

BOLUNTARIOA IZAN NAHI DUT  
...ETA ORAIN ZER?



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa

Giza Eskubideetarako, Enplegurako eta Gizarteratzeko Departamentua  
Departamento para los Derechos Humanos, el Empleo y la Inserción Social



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

ETXEBIZITZA ETA GIZARTE  
GIZIETAKO SAIA  
DEPARTAMENTO DE VIVIENDA  
Y ASUNTOS SOCIALES



CAJA LABORAL  
EUSKADIKO KUTXA

# BOLUNTARIOA IZAN NAHI DUT ...ETA ORAIN ZER?

## .....sarrera.....

Boluntariotza berria izan ez arren, azken urteotan, boluntarioez osatutako elkarteek izan duten gorakadaren eraginez, gizartean denon ahotan dagoen hitza da. GGKEak (Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeak), gizarte-marjinazio eta bazterkeria ingurukoak, ingurumenaren babeserako elkarteak, giza eskubideen aldekoak, hezkuntza eta kulturaren ingurukoak, gaixotasunen batek eragindakoenak,...

Elkarte hauen guztien sustapenarekin batera, boluntarioaren irudia oso ezaguna bihurtu da guztiontzat. Baina beste gauza askorekin gerta daitekeen bezala, asko entzun edo ikusi arren, ba al dakigu benetan datzan boluntario izatea? Ze ezaugarri ditu? Ze eskubide eta betebeharrak ditugu boluntario bezala?

Ondorengo lerroetan, hau guztia argitzen saiatuko gara. Horrela, boluntario lanean gogotsu eta ilusioz hasteaz gain, gure beldur eta zalantzak argitu asmoz.

## .....zer da boluntarioa izatea.....

Boluntarioaren irudia ezagun bihurtzea oso garrantzitsua izan da, egunerokotasunean murgilduta gaudenoi gerturatzeko eta denok elkarrekin parte har dezakegula adierazteko. Bestalde, beste batzutan bere benetako iruditik urruntzen dituzten beldur eta mamuez estaltzeko arriskua dago: "gazteegia izango naizela esango didate", "nire adinean ez naiz inor laguntzeko gai", "ni ez naiz gai lan hori burutzeko", "ez daukat inongo formaziorik", "nik ezin dut nire lana utzi eta kanpora joan", "ni baino hobeagoak daude, ez naute behar", ... Askotan, sentimendu hauek desagertu egiten dira boluntario izateko saiakeraren bat egin bezain laster. Lan esparru desberdinak dituzten elkarte asko daude (adin txikikoei

laguntzen lan egiten duten elkarteak, adineko pertsonen laguntzen dietenak, ezintasunen bat duten pertsonen aldekoak, bazterkeriaren aurkakoak, mendekotasunak, garapenerako lankidetzak,...), baita elkarte bakoitzean zeregin desberdinak ere.

Boluntarioa, bere denbora besteei laguntzeko (gizartea eraldatzeko) eskaintzeko prest dagoen edonor izan daiteke. Hala ere, egia da, borondate ona bakarrik ez dela nahikoa. Horretarako beharrezkoa da, denbora librea izatea, eta elkarte bateko partaide izatean, elkartearen helburuak eta ekintzak ezagutzea, eta bere ideiekin bat izatea.

Orain artekoarekin bat egin nahian, boluntarioaren ezaugarri nagusienak honako hauek dira:

- Bere denbora LIBREKI eskaintzen du, inolako obligazioaren menpe.
- Bere asmoa besteei / beharra dutenei LAGUNTZEA da.
- DOAN egiten da, inolako ordainsaririk jaso gabe.
- ELKARTE bateko partaidea da. *Helburu eta proiektu batzuen arabera lan egitea garrantzitsua da, une zehatz batean ikus dezakegun egoera bat (pobrezia, bazterkeria,...) konpontzeaz gain, egoera hori eragiten duten arazoiei ere aurre egiteko.*
- Hartutako konpromisoa betetzen du. Elkartearekin batera adostutakoa izango da.

## .....zegatik izan boluntario?.....

Pertsona bat boluntario moduan hasteko motibazio desberdinak daude. Batzutan gure denbora betetzeko izan daiteke, bestetan besteei lagundu nahi diegulako, egoera hori jasan dudalako eta nire esperientzia lagungarri izan daitekeela uste dugulako,... Arrazoi asko eta desberdinak izan ditzakegu.

Arrazoi bat bestea baino hobea edo txarragoa ez dela argi uztea garrantzitsua da. Boluntariotzan hasteko edozein da baliagarria; gure eguneroko egoeratik eta egonkortasunetik, besteei laguntzeko edo egoera bati aurre egiteko mugi arazten gaituztelako. Filma ikusten egon beharrean, bertako protagonistak izatera pasa arazten gaituztelako, alegia.

Teorikoki, arrazoi edo motibazioak 3 multzotan banatu daitezke:

**Motibazio pertsonalak:** Pertsona bakoitzak bere beharrei erantzun nahi dio. Beste pertsona batzuk ezagutu eta beraiekin harremanetan egon, bizitza kalitatea hobetu, zaletasunak elkar banatu, partaideen arazo berdinei aurre egin, ikasketak osatu, esperientzia jaso, jende berria ezagutu,...

**Taldeko motibazioak:** Bakoitzaren beharrei erantzuteaz gain, talde edo elkarte horren beharrak erantzutea da bere asmoa. Adibidez, talde edo kolektibo konkretu baten beharrak erantzuteko arrazoiak: adimen urritasuna duten pertsonak, kalean bizi diren pertsonak, ...

**Gizarteko motibazioak:** Taldeko edota elkarteko beharrak erantzuteaz gain, egindako lanak gizartean eragina izan dezan nahi dugu. Kasu honetan, elkarteko kideek munduarekiko ikuspegi berdina eduki dezakete. Adibidez, kolektibo batek gizartean dituen aurreiritziak aldatzeko motibazio edo arrazoiak: Hies-aren kutsatze moduak gizarteratzea, pobrezia aurre egiteko denon ardura dela sentibilizatuaz,...

Lehen esan bezala, motibazio guztiak baliagarriak diren arren, denborarekin beraien garapena izatea ere garrantzitsua da. Ziur aski, elkarte batean hastear gauden momentuko motibazioak eta 2 urte ondoren ditugunak, desberdinak izango dira. Batzuk mantendu egingo dira (pertsonalak), beste batzuk berriak izango dira (taldekoak edota gizartekoak), beste batzuk aldiz hasierako batzuen garapena (pertsonalak, taldekoak...).

Gogoratu beraz, ez dagoela boluntario izateko arrazoi edo motibazio garrantzitsuago edo hobeagorik, ezta txikiago edo okerragorik ere. Nahikoa da bat bakarra izatea, gure inguruneko egoeraren bat aldatzea edota inguruko pertsonei laguntzea eragiten badu.

.....**konpromisoa**.....

Gizartean pil-pilean dauden balore indibidualista eta kontsumistekin, bat ez datozen baloreak bultzatzen ditu boluntariotzak, horietako bat konpromisoa. Konpromisoa, betirako eta pisu astuneko balorea dela dirudi, bere benetako esanahitik urrunduz.

Askotan, gaur erabiltzen ditugun esaldietan parte hartzen du hitz honek, baina gehienetan joera negatiboarekin: "Konpromisoz joan behar dut ekitaldira", "ezin dut denbora gehiagoz atzeratu, konpromisoz egin behar dut",... Honelako edo antzeko adierazpenak, gero eta ugariagoak dira gure artean, nahiz eta askotan ez garen konturatzen.

Berez, konpromiso baloreak, oso erlazio zuzena du beste batekin, erantzukizunarekin hain zuzen ere. Konpromisoa hartzea, ezinezkoa litzateke erantzukizunik gabe; eta alderantziz, ezinezkoa da erantzukizuna izatea, konpromisorik hartu gabe. Batak bestea dakar, derrigorrez.

Hala ere, kontutan izan behar dugu, konpromiso hitzaz ari garenean, bakoitzaren erabaki pertsonalaren ondorioz hartzen denaz ari garela. Bakoitzak, libreki aukeratzen du boluntario izatea eta horretarako, hartu beharreko konpromisoa elkartearekin adostuko du.

Hartutako konpromiso honek, boluntarioak burutzen duen ekintza edota lanarekiko erantzukizuna exijitzen du. Azken finean, konpromisoa, elkartearekin eta ekintza bera osatzen duten talde edo pertsonekin izateaz gain, norbere buruarekiko ere bada.

*Konpromisoaren inguruko hausnarketa bideratu nahian, ondorengo historia gehitzen dugu. Kasu honetan, errealitatetik urruntzen dela dirudien arren, era barregarri eta neurritz gainekoz; zoritxarrez, salbuespenak direla eta, horrelakorik gertatzen delako!*

.....**borondatez nahi baina ezin dutenen ibilerak**.....



**B**azen behin fortunaren faboreak ahaztutakoei laguntzeko xedea zuen elkarte baten laguntzeko prest agertu zen gazte bat. (Tartea egingo dugu "fortunaren faboreak ahaztutakoak" zer diren azaltzeko: sistema ekonomiko, merkatuko lege eta indartsuenaren legeak medio, jatekorik, jantzekorik eta etxebizitza duinik gabe geratzen den edonor da "fortunaren faboreak ahaztutako" horietako bat. Kalean dabilen norbaiti eraso egin, jo eta biluzik utzi eta " zorigaiztoko oinezkoa" deituko bagenio bezala da. Baina, tira, gatozen harira!)

Gazte eskuzabal hark hala nahi zuelako eskaini zuen bere burua. Boluntarioa izanda oso borondate ona zuen, baina neurrian (zenbaterainokoa gutxienekoa da). Hitz eman zuen astearte, ostegun eta ostiralero joango zela elkartera arratsaldeko seietan. Elkartean oso gustura zeuden egin berri zuten fitxajearekin, ekonomiako ikaslea izanda, beste elkartean bezala motxian motx zeuden diru kontuekin lagun zezakeelako. Kontua da, boluntarioak, boluntarioa baitzen eta ez zuen soldatarik jasotzen, asteartean azaltzen zela baina ostegunean hutsik egin ezin zezakeen tenis partida izaten zuela eta ostiralean, ikusi gabe pasa ezin zuen film ezin interesgarriagoa ematen zutela unibertsitatean.



Hurrengo asteartean boluntarioa ordu eta erdi beranduago iritsi zen nahi gabe. Ostegunean ordu erdi beranduago bakarrik, eta lanaren atalik gogorrean ari zenean Yolanda deitu zion: "Baina, ez al duzu gogoratzen gaur nire urtebetetzea dela?" Ene bada, barkatu!" Paperak erabat nahastuta utzi zituen mahai gainean eta arrapaladan atera zen. Hurrengo hiru egunetan fin-fin aritu zen elkartean, izan ere, ostiralean iritsi zenean aurpegi arraroa sumatu zion koordinatzaileari. Baina hara non, handik bi astea dantza-jazzeko ikastaro trinko baten iragarkia ikusi zuen egunkarian. Jakinekua zen boluntarioak zer nolako interesa zuen kultura afro-amerikarrean, mundu beltzarekiko zuen solidaritatea, gorputz adierazpena! Koordinatzaileari abisatu eta zera esan zion: " Bi aste baino ez dira izango, gero etortzen jarraitu ahal izango dut..." Bi aste horiek bost izan ziren, baina seigarren asteko asteartean puntual-puntual azaldu zen elkartean. Berak erabiltzen zuen mahaian, gainera begiratzeko ohi diren betaurreko mehe batzuk zituen andre edadetu bat zegoen. "Arratsalde on".

"Arratsalde on" erantzun zuen emakume edadetuak eta lanean jarraitu zuen.

Koordinatzailea agertu zen eta zera esan zuen: "Kaixo. Hau Rosalia da, erretiratutako kontularia da eta gure elkartean laguntzeko prest agertu da. Etorriko al zara pixka batean?" Boluntarioa bere bulegora eraman zuen. "Begira, presaka genbiltzan kontuekin eta batzutan iloba ekarri behar izaten badu ere, eta senarra gaixotu egiten bazaio ere, zuk baina asti handiagoa du."

"Baina, ni boluntarioa naiz"

"Bueno, bueno ... badago zuretzako moduko beste kontu bat. Gobernu Kanpoko Erakundeetako(GKE) arduradunek bilera egin dugu eta zuri interesgarri egingo zaizun zerbait antolatuko dugu. Apunta ezazu helbidea eta joan zaitez bertara. Hurrengo asteartean boluntarioa helbide hartara joan zen. Etxe hartako atean "Borondatez nahi eta ezin dutenen elkartea" zioen karteltxoa zegoen 2. solairuan, ezker-eskuin. Ikusi zuenean alde egitear egon zen ez baitzuen ezer ulertzen. Baina jakin-minak arra piztu zion eta igo egin zen. Berokia janzten ari zen neska bat zegoen sarreran: "Kaixo, berria zara, ezta? Elkartearen eskuorria duzu hau zertan datzan ikus dezazun". Neskak alde egin zuen. Sarreran eite desberdineko gazte eta helduak zebiltzan sartu-irtenean.

Ondokoa irakur zitekeen boluntarioak horma batean aurkitu zuen afixan:

*Borondatez nahi baino ezin dutenen elkartea. Gizarte zerbitzuetako elkarteen batasunaren fundazioa. Euren bizitzan zerbait (baina ez gehiegi) egin nahi dutenei jarduera multzoa eskaintzea da gure helburua. Elkarte honek aldizkarien gela, bideoteka, bilera gela... ditu. Ez dago ordutegirik ez arautegi zehatzik. Nahi duzunean etor zaitezke eta nahi duzun jarduerarekin konprometitu, nahiz eta zure eginkizun anitzek eta kontaktuek konpromisoak betetzen utzi ez.*

*Hauek dira elkarte honen abantailak:*

- Errealizatuta sentituko zara.
- Fortunak(botereak) ahaztutakoak( lapurreta jasan dutenak) ez dituzula zokoratuta utziko.

*Hauek dira eskaintzen ditugun jarduerak...*

Boluntarioari ez zitzaion ideia txarra iruditu eta lista hartatik jarduera bat aukeratzera egin zuen. Baina une hartan erlojuari begiratu eta zera gogoratu zuen: " Ene bada, zazpi t'erdia . Oviedo eta Osasunaren arteko partida eman behar dute gaur".

Eta borondatez nahi zuen arren, ezin zuenez, korrika alde egin zuen.

## :::::boluntarioen eskubide eta betebeharrak:::::

1998ko Euskal Autonomia Erkidegoko Boluntarioei buruzko legearen arabera:

### Boluntarioaren eskubideak dira:

- Elkartean aktiboki parte hartzea, elkarteari buruzko informazioa jasoz.
- Esku hartzen dueneko programa edo egitasmoen inguruko antolaketan parte hartzea eta iritzia ematea.
- Boluntario-lanak eskatzen duen laguntza teknikoa, nahiz heziketa eta giza laguntza jasotzea.
- Aseguratua egotea, boluntario gisa lan egitean besteren bati kalterik egin baliezaioke ere.
- Boluntarioak bere lana betetzeko xahututako dirua berreskuratzea (elkartearekin hitzartutako baldintzetan eta kantitateak).
- Ekintzak boluntarioaren bizilekutik ahalik eta gertuen izatea.
- Bazterkeriarik gabe eta zuzentasunez tratatua izatea.
- Aurrez jakinarazita, boluntario izateari askatasunez uztea.

### Boluntarioaren betebeharrak dira:

- Elkarte laguntzea, bertan parte hartuz eta batera lan eginez.
- Elkartearikiko hartutako konpromisoak betetzea.
- Elkarrekin antolatutako eta lana behar bezala burutzeko heziketa ekintzetan parte hartzea.
- Boluntario gisa lan egitean jasotako edo jakindako informazioa isilpean gordetzea.
- Lagundu nahi dituzten pertsonen eskubideak errespetatzea.
- Boluntario-agiria eta elkartearen bereizgarria egoki erabiltzea.
- Boluntarioaren esku uzten diren materialak zaintzea.

## :::::eta orain zer?:::::

Behin boluntario izatea zer den eta zer suposatzen duen argituta, gure motibazioak zeintzuk izan daitezken, boluntario izateak eskatzen duen konpromisoaz hausnartu, eta gure eskubide eta betebeharrak zeintzuk diren ezagutu ondoren, pausua emateko prest gaudela esan dezakegu. Ekintza boluntarioari eskaini diezaikegun denbora eta zein gizatalde edo elkarte motatan lagundu nahi dugun erabakitzea besterik ez zaigu gelditzen. Horretarako, elkarte eta beren proiektuen inguruko informazioa jasotzen joan gaitezke, gure auzo edo herrian izan ditzakegun elkarrekin hurbildu gaitezke, edo sarean (interneten) informazio ugari aurkituko dugu. Bestalde GIZALDE Gipuzkoako Boluntariotzan ere aurki dezakezu.

GIZALDE, boluntarioek, ekintza boluntarioa garatzeko edo gauzatzeko beharrezko informazio, aholku, bitartekaritza eta baliabideak eskaintzen dituen gunea da.



**GIZALDE**  
Voluntariado Gipuzkoa

Idiakez, 6 - Behea - 20004 Donostia  
☎ 943 428013 • E-mail: [gizalde@gizalde.com](mailto:gizalde@gizalde.com)  
[www.gizalde.com](http://www.gizalde.com)